



## OSASUN ETA KONTSUMO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, hautaketa-prozesua ireki da Osasun eta Kontsumo Goi-Mailako Teknikaria lanpostu baterako, urtebeteko programa bat betetzeko (zabalgarría).

Hautaketa-prozesu honen emaitzak erabili ahal izango dira Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan zerbitzu honen beharrak sortzen badira eta zerbitzuan zerrenda ofizialak sortu arte.

Lan-eskaintzari uko egiteak zerrenda horietan baja ematea dakar

### **ESKAINTZAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

- Elikagaien zientzia eta teknologiako gradua, Farmaziako gradua edo Albaitaritzako gradua.
- "b" gidabaimena.

### **LANPOSTUAREN ZEREGINAK:**

- Osasun-publikoarentzat arriskutsuak diren jarduerak egiten dituzten eta elikadurakoak ez diren establezimenduak zaintzeko eta kontrolatzeko programak egitea: ile-apaindegiak, bizartegiak, apaindegiak,

- Elikagaiak, elikagai-establezimenduak, elikagaien kalez kaleko salmenta eta sarbide publikoko guneetan egindako jarduera gastronomikoak zaintzeko eta ofizialki kontrolatzeko programak egitea.

- Establezimenduetako higiene- eta osasun-arriskuak ebaluatzea.

- Osasun-kontrolerako ikuskapenak eta auditoriak egitea, eta, osasun publikorako arriskuren bat detektatuz gero, osasun publikoari buruzko legerian xedatutako neurriak aplikatzea

- Etxebizitza eta lokaletan egiten diren jardueren osasungarritasun-baldintzak gainbegiratzea.

- Elikagaien laginak hartzea laborategiko analisirako.

- Laginen analisisen emaitzak interpretatzea eta txostenak egitea.

- Txosten tekniko-sanitarioak egitea jarduera hauen irekitzeko lizentzien eta aurretiazko komunikazioen tramitazioan:

1. Establezimenduak, baita bide publikoan aldi baterako egiten diren jarduerak eta ekitaldi gastronomikoak baimentzea ere.

2. Elikagai-establezimenduak ez diren eta osasun publikoan arriskua duten establezimenduak

- Osasun-arloko erreklamazio eta alertei erantzutea:

1. Elikagaien segurtasunarekin zerikusia duten agerraldiekin erlazionatutakoak.

2. Elikagaiak ez diren eta osasun publikorako arriskutsuak diren jarduerak egiten diren establezimenduen osasungarritasuna.

3. Etxebizitza eta lokalen osasungarritasunarekin lotutakoak, bai eta osasun publiko-rako arriskutsuak diren eta elikadurakoak ez diren establezimenduenak ere.

4. Izurriteen eta bektoreen kontrolarekin zerikusia dutenak.

## **HAUTATZEKO PROZEDURA**

### **Lanbideren hautagaitzak jasotzea**

- Eskaintza **maiatzaren 5ean** aktibatuko da, **09:00etan**, **162026004031** lan eskaintza zenbakiarekin.
- Izena emateko azken eguna **maiatzaren 11a** da, egun hori barne [www.lanbide.euskadi.eus/inicio/](http://www.lanbide.euskadi.eus/inicio/)

Gehienez ere **40 hautagai** jasoko dira, lanposturako ezinbesteko baldintzak betetzen dituztenak, izen-ematearen ordenaren arabera.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak ez ditu gainerako hautagaitzak bidaliko, eta, beraz, ez dira baloratuko.

Hautagaiaren ardura izango da **curriculuma eguneratua izatea eskaintzan izena emateko unean**, eta ez da onartuko curriculumak jaso ondoren informazioa aldatzea edo zabaltzea. **Egiaztatutzat agertzen ez den lan esperientzia ez da kontuan hartuko, ezta puntuatuko ere.**

### **Hautaketa Prozesua:**

**1.- Lanpostuaren eginkizunei buruzko proba teoriko-praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzaila: gehienez 50, gutxienez 25 puntu.**

*Proba teoriko-praktikoa baldintzak betetzen dituzten eta probaren data, kokapena eta ordua posta elektronikoz deitzen zaien pertsonak bakarrik egingo dute.*

**2,- Curriculumaren balorazioa:**

**2.1. Lanpostuko eginkizunekin zerikusia duen prestakuntza osagarria baloratzea. Gehienez, 10 puntu.**

- Graduondokoa edo doktoregoa: 2 puntu.
- Elikagaien segurtasun eta osasungarritasunarekin lotutako masterra: 3 puntu.
- Kalitatea kontrolatzeko sistemen audiotzeta ikastaroak (APPCC, plan generikoak, ...): 0,15 puntu orduko, gehienez 3 punturaino.
- Lanpostuko eginkizunekin zerikusia duten beste ikastaro batzuk: 0,066 puntu orduko, gehienez 2 puntu.

**2.2. Administrazio publikoetan antzeko lanpostu batean emandako zerbitzuen ondoriozko lanbide-esperientzia. Gehienez, 26 puntu.**

Lan esperientziaren balorazioa, eskainitako lanpostuari dagokionez, lanpostua betetzearekin zerikusia duten irizpide hauen arabera: 0,4 puntu hilabete bakoitzeko.

**2.3.- IT Txartelaren ziurtagiriak: gehienez 2 puntu.**

- 0,4 puntu IT txartela 05 egiaztatzen duen kolore-talde bakoitzeko (taldea).
- IT txartelak ofizios eskatuko zaizkio erakunde egiaztatzaileari, eta prozesuan baloratzeko baliozkoak izango dira proba egiten den egunean ziurtatuta daudenak.
- IT-Txartelak lanpostua nahitaez bete behar denez, probaldia amaitu baino lehen egiaztatu beharko dira (3 hilabete). Baldintza hori betetzen ez bada, izendapenaren zerrenda amaituko da.

**2.4.- Hizkuntza-eskakizuna (euskara): 12 puntu, gehienez.**

- C2/C1: 12 puntu.
- B2: 6 puntu.
- B1: 4 puntu.

**Irizpide horietan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da behin betiko lehentasun-zerrenda. Zerrenda hori izango da arestian aipatutako lan-poltsaren arabera.**

**DATUEN TRATAMENDUA**

Lanbideren bidez hautaketa-prozesuan izena emanda dagoen pertsonak baimena ematen dio administrazio eskatzaileari datu pertsonalak tratatzeko, eta azken horrek konpromisoa hartzen du datuak eskaintzan jasotako helburuarekin tratatzeko, eta ezin dizkie datuak hirugarrenei laga, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 216ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan jasotzen den moduan (erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen zirkulazio askeari dagokionez).

Prozesua gardena izan dadin, hautagaiei baloratutako hautagaitzen prozesuan lortutako puntuazioen zerrenda bidaliko zaie. Informazioa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 32. artikuluan jasotako segurtasun-neurrien arabera tratatuko da.